


9. FUNTSEZKO JARDUERAK

Zeinu-hizkuntza irakurri eta ahots bat erreproduzitzen duen produktu bat ekoizten dugu. Arazoren bat gertatuz gero, horri irtenbideren bat bilatzen saiatuko ginateke arazoa konpontzeko. Adibidez, bezeroak makina hori erabiltzeko zailtasunak baditu edo makinan akatsen bat aurkitzen badu, gurekin harremanetan jartzea eskatuko diogu eta hori konpontzeko ahal dugun guztia egingo dugu. Horrez gain, garantia izango duela kontuan hartu behar da.

Sare sozialak sortuko ditugu, bertan gure enpresako proiektu eta kurtsoari buruzko informazioa ipiniko dugu. Gainera, gure kontaktua bertan jarriko dugu edota sareak erabili ditzateke galderak egiteko. Sare sozialak Naroak eramango ditu web orrialdeak sortzeko 20 orduko kurtso bat egin duelako, eta web orriok sortzen esperientzia dauka.



Gure enpresa ezagutarazteko publizitatea izango da hori indartzeko ezinbesteko gauza bat (irakargien bidez, aldizkarietan gure makinaren berria agertzea...). Horrez gain, zozketak egiteko prest egongo ginateke, eta zozketa hori irabazi duenak produktua merkeago eskuratzeko aukera izango du. Promozioari dagokionez, produktua erosi eta hori erabiltzeko kurtsoa ordaintzen baduzu, produktua prezio merkeago batean eskuratu ahal izango duzu.